

I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 238/2021 Foru Agindua, irailaren 7koa, Zambranako (Araba) arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen, Zambranako Udalak bidalita, Zambranako arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualari buruzkoa, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiaren arabera; planaren zirriborroa ere jaso zuen.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, dokumentazioa hori jaso ondoren, hasiera eman zion, 2021eko uztailaren 12an, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari. Kontsulta epea hilabetekoa izan zen.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2021eko irailaren 2an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (21/94 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatutako eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Ingurumen dokumentu estrategikoan adierazten denez, aldaketa puntual honen bidez bi helburu lortu nahi dira:

– Eusko Jaurlaritzak, Europako Erkidegoaren ingurumen arloko dirulaguntzen laguntzarekin, sustatutako behar estrategikoari erantzutea, hain zuzen ere, mahastizaintzaren eta ardogintzaren ondorioz sortutako hondakinak biltzea.

– EAEko klima aldaketaren aurkako 2050erako estrategia betetzen aurrera egitea, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteari dagokionez.

Aldaketa puntuala Zambranako 1 poligonoko lurzoru urbanizaezineko 8, 9 eta 10 lurzatiak birkalifikatzean eta industria lurzoru urbanizagarri bihurtzean datza (26.275 m²). Lurzati horiek "Nekazaritza balio bereziko nekazaritza zona" gisa daude sailkatuta. Eremu hori, 1 poligonoko industriako hiri lurzoruko 711 lurzatiarekin batera (gaur egun jarduerarik ez duen molde fabrika zaharra), industria jarduketa integratua (AI Z13) izango litzateke.

Azalera horietan kokatuko dira, ziurrenik, Destilerías y Biorefinerías Zambrana SL enpresaren instalazioak.

1.2. Ebaluatutako eremu geografikoa:

Aldaketa puntualaren eremua Zambranako 1 poligonoko 8, 9 eta 10 lurzatiei dagokie. Lurzati horiek herriaren iparraldean daude. Hurrengo irudian, berdez nabarmentzen dira lurzati horiek, eta urdinez, berriz, poligonoko 711 lurzati; horren barruan, laranja grafiatuta dago antzinako molde fabrika, gaur egun inolako jarduerarik ez duena. Aukeratutako kokalekuak Zambranako herrigunearen iparraldetik itxiko luke hiri bilbea, errepidezko komunikazioen sistema

orokorrarekin mugakide izango litzatekeelako, eta horrek erraztu egingo litzuzke komunikazioak, birziklatu eta balorizatu beharreko hondakinak, beharrezko hornidurak eta ekoiztako produktuak sartzeko, eta, horrela, ez luke eraginik izango herrigunearen barne komunikazioetan.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

– “0” aukera edo ez jardutekoa (Ez da hautatu): Egungo hirigintza egoerari eustean datza; horrela, 1 poligonoko 711 lurzatiak industriako hiri lurzoru gisa kalifikatuta jarraituko luke, eta 1 poligonoko 8, 9 eta 10 lurzatiek lurzoru urbanizaezinean jarraituko lukete, 12. zona gisa (“Nekazaritza balio bereziko nekazaritza zona”). Agerikoa denez, aukera horrek ez die erantzuten planteatutako ekimenei.

– “1” aukera (hautatua): Kontuan hartuta hiri antolamenduko plan orokorraren hasierako onespenerako prestatutako dokumentuan lurzoru urbanizagarriaren 21 ha desklasifikatuko direla, lurzoru urbanizaezineko Zambranako 1 poligonoko 8, 9 eta 10 lurzatiak (“Nekazaritza balio bereziko nekazaritza zona”) industria lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea erabaki da, 1 poligonoko industria lurzoruko 711 lurzatiarekin batera industria jarduketa integratua (AI Z13) osa dezaten. AI Z13 horretan Destilerías y Biorefinerías Zambrana SL enpresaren instalazioak kokatuko lirateke.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2021eko uztailaren 12an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkarte	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Aranzadi Zientzia Elkarte	
Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Bird Life	
Zambranako Udala	
Zambranako Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo iruzkinen kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 21/94 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du proposatutako aldaketak ez daukala eragin arkeologikorik eta, beraz, ez dela inolako esku hartze arkeologikorik egin behar.

- URA Uraren Euskal Agentziak txostena egin du, eta bertan zehaztu du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokitzen joz gero gaiari buruzko txostena egin dezan, bat etorriz Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin.

- Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak txostena egin du, eta bertan, honako hau adierazi du: "Egiaztatu da egin beharreko jarduketak ez direla Natura 2000 Sareko eremu babestuetan gauzatuko eta ez dutela eragin nabarmenik izango habitatetan eta espezieetan". Nahikotzat jotzen da ingurumen dokumentu estrategikoko ingurumen integrazioko neurriak eta ingurumen organoak zehaztutakoak betetzea.

- IHOBEn Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak adierazi du aldaketa puntualaren eremuan ez dela izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan. Aldaketa puntualaren eremuan kutsadura aztarnarik somatuz gero, horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari, Lurzoruaren Kutsadura Galarazi eta Zuzentzeko 4/2015 Legean xedatutakoa betetzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak txostena igorri du eta adierazi du, behin espedientea aztertuta, aldaketa puntualaren eremuan ez dela antzeman kultura ondarearen gaineko eraginik.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, eta bertan, proposamenaren laburpena egin ondoren, zenbait iruzkin jaso ditu:

- Aldaketa puntualaren eremuaren eraginpeko lurzatirik gehienak "balio estrategiko handiko" gisa kalifikatuta daude Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren, nahiz eta aldaketa puntualaren eremu osoak egon beharko lukeen "balio estrategiko handiko" gisa kalifikatuta, eta ez da hala LPSaren beraren akats baten ondorioz. Horiek horrela, eta ingurumen dokumentu estrategikokoan jasotakoaren aurka, aldaketak eragina izango du lurralde plan sektorialetan.

- Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legearen arabera, hirigintza plangintza Nekazaritza eta Basogintzako LPSari lotuta dago, eta haren edukira egokitu behar da. Gainera, balio estrategiko handiko lurzoruari eragiten dioten administrazio jarduketetan nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa egin behar da. Protokolo hori erantsi da, sortutako eragina deskribatu eta sailkatu ondoren hura hainbat parametroren arabera ebaluatzen duen idazkiarekin batera; idazki horretan ondorioztatzen da jarduera bateragarria dela, honako neurri honekin: "egin nahi den jarduera kokatzeko eskuragarri dauden beste industria lurzoru batzuk aztertzea".

- Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren 10. eta 62. artikuluetan jasotako edukia aipatu ondoren, eta sortu nahi den hondakinen birziklatze eta balorizazio zentroa udalerririk industria lurzoru gisa sailkatutako azaleretako batean ezartzeko aukera baloratu beharko litzatekeela adierazi ondoren, honako hau ondorioztatzen da: "Zambranako udalerriko arau subsidiarioen aldaketa puntual hau onestearen ondoriozko eragina bateragarritzat jotzen da, proposatutako konpentsazio neurriak hartuz gero". Konpentsazio neurri horiek Zambranako HAPOaren hasierako onespenean sailkapena aldatu nahi zaien lurzoru urbanizagarriko 21 hektareei dagozkie. Horiek nahikotzat jotzen dira aldaketa puntualean jasotako balio estrategiko handiko lurzoru galerak konpentsatzeko.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Aipatutako aldaketa puntualak, behin betiko onetsiz gero, eragin argia izango luke Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean jasotako balio estrategiko handiko lurzoruetan (irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onetsi zen behin betiko plan hori). Aldaketa puntualaren eremuaren zatirik handiena balio estrategiko handiko lurzoru gisa kalifikatuta dago, nahiz eta, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura honen esparruan Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak egindako alegazio txostenaren arabera, akats bat dagoen Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren xehetasun

kartografian aldaketaren eremuan, eta benetan aldaketa puntual osoan egongo lirateke balio estrategiko handiko lurzorua. Aldaketa puntualaren eraginak ebaluatzeko Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak berriaz egindako nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloan ondorioztatzen da jarduketa bateragarria dela, baina konpentsazio neurriak ezartzeko eskatzen da, eta, Zambranako hiri antolamenduko plan orokorrari hasierako onespina emateko dokumentuan proposatzen denarekin bat etorritik, adierazten da hiri lurzoru urbanizagarriaren 21 hektarea desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin bihurtzea nahikoa litzatekeela aldaketa puntualaren ondoriozko balio estrategiko handiko lurzoruaren galera konpentsatzeko.

Bestalde, eta kontuan hartuta aldaketa puntualaren eremu osoa gaur egun nekazaritza laborantzara bideratuta dagoela eta ez dagoela zuhaixka edo zuhaitz landaredirik, ez da espero katalogatutako habitaten edo landaredi autoktonoaren gaineko inpakturik. Aldaketa puntualaren eremuaren iparraldean dagoen nekazaritza bidearen ertzean besterik ez dago intereseko landaredia zona horretan, ureztatzeko ubide baten ondoan, ezponda handi batean. Bertan, lizar (*Fraxinus excelsior*) eta zumar (*Ulmus minor*) ale batzuk daude, baina nolahi ere, jarduketa eremutik behar beste aldentuta daude, eta aldaketa puntualaren sarbideek ere ez diete eragingo, ingurumen dokumentu estrategikoaren arabera. Era berean, ez da espero beste ingurumen elementu garrantzitsu batzuen gaineko eraginik, ezta Natura 2000 Sareko naturagune babestuen gainekorik ere. Eta positibotzat jotzen dira sustatzaileak aurkeztutako aldaketa puntualaren eremuaren kalifikazio xehatuko planoan proiektatutako berdegunea eta oinezkoentzako pasealekua, bai eta horien antolamendua ere.

Aldaketa puntualaren lursailek akuiferoen kalteberatasun handia dute, eta hori behar bezala hartu behar da kontuan bai eraikinak egin aurreko azterketa geoteknikoa egiterakoan, bai urbanizazio obretan euri urak biltzeko diseinua egiterakoan.

Azkenik, aipatu behar da aldaketa hau ezartzeak izan ditzakeen ondorioak urbanizazio eta eraikuntza obrak gauzatzeak eragindakoak izango direla. Eraginak aldi baterakoak izango dira, eta obrak bukatu bezain laster amaituko dira. Horri dagokionez, ingurumen integratioko neurriak ezarri beharko dira.

4. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako neurri zuzentzaile eta babesleez gain (I. apartatua), planaren ingurumen jarraipeneko neurriez gain (J atala) eta ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera doan jasangarritasun energetikoaren azterlanaren jasangarritasun energetikoa bermatzeko neurriez gain (4. atala), hirigintza agiriak honako neurri zuzentzaile eta babesle hauek hartu beharko ditu kontuan, berriazko araudian sartzeko:

– Aldaketa puntualaren lursailek akuiferoen kalteberatasun handia dute, eta hori behar bezala hartu behar da kontuan bai eraikinak egin aurreko azterketa geoteknikoa egiterakoan, bai urbanizazio obretan euri urak biltzeko diseinua egiterakoan. Beraz, ingurumen integratioko neurri egokiak hartu beharko dira, akuiferoari kalterik ez eragiteko.

– Aldaketaren edozein eremutan lurra atera behar bada, landare lurri dagozkion horizonteak era selektiboan atera beharko dira, eta, onena, berehala birbanatzea edo, ezinezkoa balitz, metatzea litzateke. Lur metak gehienez bi metro eta erdi izan ahalko ditu altueran, eta ebakidura trapezoidaleko masatan pilatu beharko da. Landare lurra, lehentasunez, gainazale-tako landaretza eta lurzoru lehengoratzeko lanetarako erabili beharko da, aldaketa gai diren lurzatietan bertan edo haien ondo-ondoan.

– Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabili beharko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea: baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakin-degi edo zabortege baimenduetara eramane beharko dira. Eraikuntza eta eraispenez hondakinak sortzen badira, Eraikuntza eta Eraispenez Hondakinak Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zambranako arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA